

# IRABAZI ITURRIAK

Lehenik, gure hasierako irabaziei helduko diegu. Gure aplikazioa Euskal Herriko biztanleei laguntzeko denez, Eusko Jaurlaritzak 30.000€ inguruko diru-laguntzak eskeiniko dizkigu. Taldekide bakoitzak 3300€ ordaindu beharko ditu, bakoitzaren diruarekin edota familiako kideek sartu dezaketen dirutik, hala ere, proiektu hau inbertsio bat bezala ikusten dugu, eta etorkizunean berreskuratuko ditugula ziur gaude.

Jarduneko irabaziei dagokienez, gaur egun, dirua lortzeko modurik errentagarriena aplikazioa barruan iragarkiak ezartzea da, honela esparru desberdinetako enpresek ordainduko digutelako beraien burua promozionatzeko. Gainera, ordaindutako diruaren arabera iragarkia erabiltzailearentzat deigarriagoa izango da, alegia, tamaina handiagoa eta iraupen luzeagoa izango du.



Bestalde, premium zerbitzu bat jartzea erabaki dugu Mugifast Prime, bide batez, etekin gehiago lortzeko. Honen hilabeteroko kostua 4,99€ izango litzateke. Eta aukera honi esker iragarkiak kenduko zaizkio bezeroari eta bidaia bonuak ere izango ditu, bidaiak ahalik eta modu merkeenean egiteko.

Gainera, aplikazioan bertan, tren eta autobus tiketak erosteko funtzioa sartu dezakegu etorkizun batean, horrela, saltzen den tiket bakoitzeko komisio bat eskuratuko dugu.

Azkenik, proiektu hau arrakastatsua izango dela deritzogu, diru-sarrera desberdinak ditugulako, beraz, horien bidez errentagarria izango dela aurreikusten dugu.